

B.14.2. San Mames basilizaren inguruko nekropolia

Zuzendaritza: Daniel Vallo Espinosa
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.14.2. Necrópolis en el entorno de la ermita de San Mamés

Dirección: Daniel Vallo Espinosa
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Continuation of the excavation of the cemetery located in the vicinity of San Mamés Chapel.

Sarrera

Santimamiñeko San Mames basilizaren inguruaren azterketari segida emanez, 2010. urtean zehar beste indusketa bat burutu genuen aurreko urteetan egindakoak emendatuz. Haietan, gogora dezagun, antzinaroko hileta hondakinak, VII. mendekoak, dokumentatu genituen³⁴.

35 m²-ko eremu bat induskatu genuen aurreko esku-hartzeen xede izandakoen ondoan (basilizaren ipar-mendebaldeko zelaian), betiere unitate estratigrafikoetan induskatzeko metodologia arkeologikoari jarraiki. Artikulu honetan emaitzen aurrerakin bat aurkezten dugu, aurkitutako materialak une honetan azterzen ari direlako.

Estratigrafiaren sekuentzia

Induskatutako eremu ia osoan barrena zabaltzen diren betegarri horizontal batzuk dira hondakin arkeologiko aspaldikoenak. Haiei atxikiriko materialak eta egokiera bat datoz aurreko esku-hartzeetan dokumentatutako antzinaroko geruzekin.

Geruza hauek aurreko indusketa kanpainan identifikatutako ebakiak (6016. UE) nahasita zeuden. Haren oina guztiz dokumentatu ahal izan dugu kanpaina honetan: oinplano zirkularreko ebakia da, paretak oso irregularrak. Lur eremua berdintzen duten betegarri batzuek amortizatzen dute ebaki edo zulo hau.

Lur eremua berdintzeko mailaren azpian beste ebaki eta betegarri batzuk bereizi genituen (6024., 6025., 6026., 6027. eta 6028. UEak), karobi baten prestakina, erabilera eta abandonatze mailak, hain zuzen ere. Su bizi baten eraginez gorritutako buztina eta desegindako kareharri hondakinak eta ikatzak azaldu ziren.

Bukatzeko, aurreko sekuentzia osoa amortizatzen zuen betegarri sorta bat induskatu genuen. Betegarri hauek aro modernoko materialez osatuta daude, eta lur eremuak berdintzeko baliatu dira, edo berez osatu dira denboraren joanean.

Introducción

Continuando con el estudio del entorno de la ermita de San Mames de Santimamiñe durante el 2010 se realizó una nueva excavación ampliándose las realizadas en años anteriores y en las que se había documentado la presencia de restos funerarios tardoantiguos del siglo VII³⁴.

Se procedió a excavar un área de 35 m² junto a las anteriores intervenciones (en la campa situada al noroeste de la ermita) siguiendo la metodología arqueológica de excavación por unidades estratigráficas. En este artículo se presenta un avance de los resultados, estando los materiales encontrados en proceso de estudio.

Secuencia Estratigráfica

Los restos más antiguos localizados son una serie de rellenos horizontales, que se extienden por la mayoría de la excavación, y que por los materiales asociados y su disposición coinciden con los estratos tardoantiguos documentados en anteriores intervenciones.

Estos estratos se encuentran alterados por un corte ya identificado en la anterior excavación (U.E. 6016). Se ha podido documentar su planta al completo en este ejercicio, siendo un corte de forma en planta circular con las paredes muy irregulares. Este corte se encuentra amortizado por una serie de rellenos de nivelación que regularizan el terreno.

Con posterioridad a la nivelación del terreno se ha documentado una serie de cortes y rellenos (U.E. 6024, 6025, 6026, 6027 y 6028) producidos por la preparación uso y abandono de una calera. Ha aparecido arcilla rubificada por la acción de un fuego intenso y restos de piedra caliza deshecha y carbones.

Finalmente y amortizando toda la secuencia anterior se han excavado una serie de rellenos con material moderno, que han sido realizados para nivelar o se han formado de modo natural con el paso del tiempo.

M. Unzueta Portilla; D. Vallo Espinosa

³⁴ M. Unzueta Portilla, J. Cardoso Tostado eta D. Vallo Espinosa (2009): «San Mames basilizaren inguruko nekropolia» *Arkeoikuska* 2008. 281-284. orr.

³⁴ M. Unzueta Portilla, J. Cardoso Tostado y D. Vallo Espinosa (2009): «Necrópolis en el entorno de la ermita de San Mames» *Arkeoikuska* 08. p. 281-284.